


Noaia !!



**Azaroaren 30ean,
Ruper Ordorika**



Abiadura
Handiko Eusko Trena?



Usurbilgo Nekazal Produktuak


*Txüt Baseria Gure Herriko
Ondare zaharra degunez*

*Baserritarra - Nekazaria
Natura Maitale denez*

*Zaindu ditzagun bizi bai dira
Beraiek sortutako ez*

*Bai barazkiak fruitu ta okelez
edo hauen barietatez*

*Gure Kultura ta elikaduran
onbehar ta osasunez*



EROSI



HERRIKO



NEKAZAL



PRODUKTUAK

- ARBURU baseria. Tel.: 943 37 23 95
Behi esnea
- ALTZONDO-ESNAOLA. Tel.: 943 36 10 50
Txekorrak
- BERRITZAGOIENA baseria. Tel.: 943 37 28 28
Txekorrak
- GALDAGORRI baseria. Tel.: 943 36 06 39
Txekorrak, piperra, babarruna, ilarra, balna
- IARBE baseria. Tel.: 943 37 12 93
Behi esnea
- IBARROLA TXIKI baseria. Tel.: 943 36 30 07
Behi esnea
- IGARTZABAL baseria. Tel.: 943 37 00 63
Arkumeak eta ardi esnea
- OLARRI baseria. Tel.: 943 37 09 63
Txekorrak
- TROIA baseria. Tel.: 943 36 22 86
Behi esnea
- ETXETXO baseria. Tel.: 943 37 24 05
Behi esnea eta loreak
- OLAIZOLA barazkiak.
Porrua, letxuga, ilarra, azalorea
- URTINEA baseria. Tel.: 943 36 22 55
Loreak
- ARANBURU negutegia. Tel.: 943 36 64 60
Loreak eta landareak
- LARTZANDIETA baseria. Tel.: 943 37 40 98
Oilaskoak eta eztia
- SARI baseria. Tel.: 943 36 60 61
Barazkiak
- IÑAKI LABAIEN. Tel.: 943 37 15 90
Ibarrako piperrak
- OSTATU baseria. Tel.: 943 37 33 46
Barazkiak eta txerriak

Produktu hauek eros ditzakezu:

- **HARATEGIAK:** Alkorta, Arruti, Esnaola, Ramon, Txapartegi, Imanol Txapartegi
- **BARAZKIAK:** Alkorta, Charter, Dia, Eiza, Esnaola, F. Marin, Lourdes, Ugari-Arillaga

USURBI L


GIDARI-ESKOLA



%20ko deskontua matrikulan!

MATRIKULA ZAITEZ!

*Kale nagusia, 5
Telf: 943 36 27 93 - 651 70 37 71*



Ruper Ordorika

**OIARDO
POLIKIROLDEGIA
USURBIL
AZAROAK 30**
- larunbata -
gaueko 10:30etan

Txirrikitutik



Aparicio argazkiak, 1967.07.09, Kaleberria

Udal fototeka

Azaroaren 21ean Santa Zezili eguna ospatuko dute gure herriko musikoeak, eta Zumarte Musika Eskolakoek urtero bezala, azaroaren 22an, kontzertua eskeiniko digute Udarregi ikastolan. Gure herrian urtetan euskal kulturaren alde lan egin dutenak asko dira baina euskal musikaren alorrean aipatzekoak dira, besteren artean, Artzetar txalapartariak.

1967. urteko uztailaren 9an, Usurbilen Euskal Herriko euskal sukaldaritza eta sagardoaren dastatze eta kalitatearen eskualdeko lehiaketa ospatu zen. Argazki hau ordukoa dugu eta bertan Jexux Mari eta Joxe Antonio Artze anaiak ageri dira txalaparta jotzen. Hauen atzean berriz, lehiaketaren epaimahaia osatzen dutenak daude adi-adi txalaparta saioa ikusten: German Rekondo, Juanito Iturralde (Juanito Kojua), Jose Garmendia, Jose Iparragirre, Jose Migel Larrañaga, Jose Otaegi (pasteleroa) eta Jose Kruz Kalonge (Igeldoko Kalonge). Aurkezle lanetan, Jose Mari Iriondo ezaguna ibili zen.

Lehiaketa herriko frontoian egin zen eta argazkian ikusi dezakegunez, irabazleek sari gisa kopa ederrak eramateko aukera izan zuten.

ZALOA ARNAIZ

fototeka_usurbil@euskalherria.org

Noaua!!

Argitaratzailea : *Noaua!* Kultur Elkarte

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea : Imanol Ubeda

Kazetariak: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea: Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea: Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak: Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustín Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zalao Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

Informatika: Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Aurkibidea

ZUTABEA, AITOR LANDALUZE _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

KONTZEJU TXIKIA _____ 10. ORR.

Eusko Trenek trenbidea zabaltzeko
asmoa duela adierazi dio Udalarri.



ERRAUSKAILUA, EZINBESTEAN _____ 12. ORR.

ERLE EGUNEKO IRUDIAK _____ 14. ORR.

HAMABOSTALDIA BIKAIN HASI DA _____ 15. ORR.

BEHOBIA-DONOSTIAKO EMAITZAK _____ 16. ORR.

ALUSTIZA PILOTARIA NOAU! TXIKIN _____ 18. ORR.

EKTALDI AIPAGARRIENAK AGENDAN _____ 22. ORR.



Usurbilgo Uclala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

AZALA

Ordenadorez, TGVren burua gehitu dioguru Eusko Trenekoari.

Zutabea



AITOR LANDALUZE

Oria

Azaroan, eguzkia baino lehenago esnatzean laino arin bat Oriatik gora, egunaren antzerkiaren gortina bailitz, mendietara igotzen da. Hostoz hosto igotzen eguzkiak birrindu arte. Sukaldeko kristal lausotuak fresko; eskua pasa eta gandua urturik irristaka behera erori da. Kalean argia, ahula, egun gutxi barru eskasagoa izango dela oroitu gabe.

Kalean jantziek ez dute udarako preskura, ez eta udaberriaren kolorea ere, orain negurako zubian egonik astunagoak, ilunagoak dira. Tren geltokiko bidean, eguzkia jaiki da eta bere gaurko lehen begirada Ermotegi inguruko basoarentzat izan da, hor ikusi-ikasiko ote zuen Zumetak gorria?

Treanean, jendea, bidea, zubia, ibaia. Oria lasai dago, poliki bazterrek bustiz

itsasoaren bila; tunela. Txokoalden, zubia zeharkatzen duten Gilisagastiko olagizonek, bukatu berri duten aingura, idiek gurdian tiraka daramate. Burdin mea goritu arte berotu eta astindu ondoren sortutako aingura. Galeoi gerlari eta egoskorra gelditzeko eta itsasoan kieto mantentzeko indarra eman nahian, kolpez eta indarrez astindutako mea. Andatzar haritz erren ikatzak labetan sortutako beroak ezkonduetako meaz egindako aingura.

Ondoren baserriak, hauen ondoan baratzak, esku beltzen batek jaso ez zuen esku zuridunen piperren bat edo beste; zuhaitzak, dagoeneko batzuk biluzik, lotsaturik agian?

Aurrerago, Mapilgo untzian galeoi astuna eraikitzen ari dira, Irsisasiko basoak eskainitako egurra josiz eginda-

koa. Berriz etorri ez diren zuhaitzak, urrutira joanak; Jaun handi bezain zitalak eraman eta altxorrek lapurtu eta ekarri zutenak.

Masta biluzien jantziak, bela-oihalak eta ehunka soka... Itzaoko erriberan diren jostunak Kalamusoron landutako belarrak eskuz eta oinez korapilatzen ari dira.

Eta Oria beti ondoan, garai batean bezala orain ere; eta hor Olabarrietan, Usurbil bukatu eta Orio eta Aiarekin lotzen den lekuan (Makrokiroldegi baterako aproposa omen den hortan) harri bat. Haren gainean arrantza egin-berri duen lertxunak, harrapatutako azken arraiaren buztana, mokoartean arro erakutsiz begiekin keinu egin duela dirudi.

Zutabegileak: Luis Aranalde • Olatz Altuna • Aitziber Matxain • Ainhoa Azpiroz • Aitor Landaluze • Mikel Usabiaga

Ika-mika



Manifestazioa eskubide politikoaren alde

Azken hileotan Euskal Herrian bizi den egoera politikoaren larritasunaz jabetuta, herriko hainbat talde eta eragilek kalera irtetea erabaki dute. Ondoren agertzen den agiriaren inguruan dei egiten diete beraiek bezala kezkatuta dauden herritar guztiei manifestazioan parte har dezaten.

Eskubide politikoaren alde

- Euskal Herria herri berezitua da, nazio bat da, bere hizkuntza, kultura, lurralde eta nortasun propioak dituena.
- Herri bezala bizirauteko eskubidea du eta ahalegin horretara bideraturiko egitasmo politiko guztiak zilegi dira.
- Sistema demokratiko orok ideien eta proiektuen aniztasuna bermatu behar ditu.
- Pertsona guztiek dute bere nazioaren partaide izateko eta beren ideien arabera haren alde egiteko eskubidea.

Azken urteotan eta bereziki azken asteotan hainbat pertsona, talde eta indar politikoaren aurka hartu diren neurriak ikusita, eskubide hauen guztien urraketa begi bistakoa da. Gainera, hila-bete batzuk barru egingo diren hauteskundeetan, usurbildarrok nahi ditugun ordezkari politikoak hautatzeko eskubidea bera ere arriskuan dago, gure herrian gehiengo duen aukera politikoak aurkezterik izango duen ala ez argi ez dagoelako.

Euskal Herriaren etorkizuna eta, horrenbestez, duintasun nazionala bera ere kinka larrian dagoela konbentziturik, behean izenpetzen dugunok zera exijitzen dugu:

1. Arestian aipaturiko neurri ez demokratiko eta faxistak bertan behera uztea.
2. Proiektu eta ideia politiko guztien zilegitasuna aitortua eta bermatua izatea.

Hau guztia aldarrikatzeko, **DATORREN AZAROAREN 23AN, ARRATSALDEKO 6TAN FRONTOITIK ABIATUKO DEN MANIFESTAZIORA** dei egiten diegu herritar zein herriko talde, elkarte eta entitate guztiei.

Deitzaileak azaroaren 18 arte: Agiñako jai batzordea, Agiñako Kirol Kultur Elkarte, Aitzaga Elkarte, Akerra gaztetxea, Arrate zaharren egoitza, Erle laguna, Errepresioaren aurkako taldea, Etumeta euskaltegiko irakasleak, Guraso Eskola, Etxerat, Euskal presoak Euskal Herrira kirol taldea, Gorostitxo Eztiola Elkarte, Gure artera bilgunea, Gurtertz, Ibai Ondo, LAB, Mihixe pintura eskola, UGA, Zubietako Herri Batzarra, Zubietako jai batzordea, Zubietako Pelota Elkarte, Mahaspildegia.

Oharra: Agiria babesten dutenak: Andatze Kirol Elkarte, Elkarri, Noaua! Kultur Elkarte

Ika-mika



Pisua alokatuko nuke inguru honetan, espekulatzailleak abstenitu, mesedez

Gauzak hala suertatzeko direlako, bost urte egin ditudan etxe hau uzteko garaia heldu da. Bilatu egin behar, beraz, denbora luzez pilatzen eta pilatzen joan diren trasterientzako etxe bat, pisu bat, txoko bat.

Esan beharrik ez dago, lotarako, otorduetarako, egoteko, sorpresa bisitak jasotzeko, dutxatzeko... bizitzeko, alegia, etxea behar duela gizakiak, are eta gehiago hogeitahamar urte beteak dituzunean.

Hasi naiz ba ditxosozko pisu horren bila, pentsatu ere egin gabe honek suposatuko didan desgastea; oraintxe hona, oraintxe hara, honi esan eta hari komentatu, besteari galdetu, telefonoz deitu, okindegian abisua utzi... Ez da posible, *erotu gea ziero!!!* "Usurbilen, 2 logela, egongela, komona, sukaldea: 70.000 (pezetatan, oraindik errazago entenditzen gara eta). Usurbilen, zentrikoa (non ote da hori?), 4 logela, sukaldea eta komona, dena kanpokaldera ematen duena: 85.000. Usurbilen, 3 logela, 2 komon, sukaldea: 75.000. Usurbilen... *"ta dana holakua!! Bueno dana, dagoen gutxia, ezto besteik!!!"*

Jakin nahi nuke zenbat gazte bizi diren bakarrik Usurbilen beraien aukera horixe izan delako.

Baina tira, alokairuen prezioa ikusita erosketaren aukera ere hortxe dago, pentsatu dut nere artean, berria ez bada (usurbildar askori "txollo-protektziozko" pisurik ez baitzaigu tokatu), bigarren eskukoa. *Gajua!!!* Lehen aipatutako kondizio beretxutakoak, hau da, "Usurbilen 2 logela, egongela, komona eta sukaldea: 24.000.000 (pezetatan), edo

26.000.000, edo 30.000.000 (ah, eske honek gasa sartua du, nahiz eta bigarren eskukoa izan).

Bueno, ba kuriosidadeak jota bankura egin dut bisita eta bertako langileari kreditu hipotekario baten simulakroa egiteko proposamena bota diot. Bai azkar asko egin ere; orain omen da etxea erosteko garai polita; 30 urtetan zehar hilero-hilero 110.000 pezeta ordainduz gero, *etxe propiyua* edukitzea aukera dut. *Arrayua!!!* Nola demontre ordea saltzen ote dira egiten diren etxe guztiak? Ahhh, kontxo, binka!!! Bi soldata... bikotea... ez ote da egia bizi dugun mobida guzti hau, eguneroko bizitza, alegia, zentzu askotan, arlo askotan, bikoteentzako (heterosexuala, noski) "preparatuta" dagoela? Ba al da aukerarik gizarte honetan norberak bere bizitza-proiektua diseinatzeko?

Harira, aldamenekoak pisua 25.000.000 pezetatan di da batean saldu duelako bereagatik 27.000.000 eskatzen dituen espekulatzaillea da. Noski, norbera libre da nahi duena eskatzeko, *alla kuidaos!!!*

Kontua da, merezi al du nere bizitzako 30 urte hipotekazteak 60rekin etxe propiyua edukitzeko?

Alokairuko pisu batean bakarrik bizitzeko aukera ezinezkoa denez, lagun pare bat bilatu ditut konpartitzeko, etxea eta gastuak, eta tokatzen dena. Badakizu, beraz, pisuren bat baduzu eta berarekin zer egin ez dakizula baldin bazaude deitu iezadazu pipiak jan baino lehen.

943 36 54 94 Nerea

(eguerdi aldera seguru naiz etxean)

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

Hurrengo alea: abenduak 5. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** azaroak 29.

Postaz: Noaua! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil

e-mail bidez: noaua.k.e@euskalnet.net

MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



Igandetan ganba-ziri mundialak!



IMANOL
GOENAGA

Txokoalde

Gertakari ugari

Kaixo herritar guztioi! Hementxe gaituzue berriz Akerra gaztetxeko kideak Noaua!ko kronika hau gure auzoko albisteekin betetzeko asmoz. Hamabost egun hauetan gertakari ugari eta albiste garrantzitsu asko izan ditugu Txokoalden.

Errealeko zuzendaritzaren azken bilera eta gero, informazio benetan interesgarria heldu zaigu gure eskuetara: Berriola aurreko aparkalekuan futbol zelai berri bat egiteko asmoa plazaratu du Astiazaran presidente jaunak. Harrapazak/n, hi! Auzoan dugun futbol harrobia ikusiko ote zuen Saltxipin egindako bazkariaren batean.

Berriolaz ari garenez, Estatuko kirol federazioak fabrika honen sapaiko igerileku apartak datozen igeriketa finalak gauzatzeko proposa-

mena egin dio Mondragón Corporación Corporativa-ri. Honen baiezkoa jaso ondoren, datorren urteko udaberrian ikuskizun bikaina izango dugu gure auzoan. Gure erosotasunerako, fabrika goiko malkarrean bost mila bat pertsonentzako eserlekuak egingo dituztela heldu zaigu gure belarrietara.

Kirolarekin jarraituz, Euskadiko Pilota Federazioak Txokoaldeko frontoi gaindiezina ikusi ondoren, eskuz banakako finala Atano III.ean egin ordez gure frontoian egitea erabaki du. Material probaketa maiatzaren 2an izango da. Bertan izango ditugu finalera iritsiko diren bi kirolari handi horiek.

Portzierto, pilotako porran parte hartu nahi baduzue gaztetxetik azaldu.

Erleak lorez lore



EKIÑE
OLAIZOLA

Kaleberri

Hilaren 10ean Erle Egun oparo batez hornitu ginen eta erleek lorez lore biltzen dituzten polen eta hainbat gauzetaz gozatu ahal izan genuen. Denetik zegoen: kandelak, xaboiak, ogia, gazta, intxaurrak (eta abar), ezta (nola ez) eta erlei "lapurtu" ohi diegun beste hainbat gauza, baina aurtengo Erle Eguna triste samar ikusi dut. Ez zen jende gehiegi erosketak egiten, postuetako ugaritasuna edo barietatea aurreko urteetako baino murriztagoa iruditu zitzaidan eta lehiaketa besterik gabe burutu egin zen, jende gehiegiren arreta piztu gabe.

Bestalde, bazkalorduan, Aginaga Sagardotegian bildu zirenek, bazkari eder bat gozatu ahal izan zuten, alegia, sagardotegiko menu gustagarri eta tradizionalaz. Hala ere, zenbait arduradunen huts egiteak zenbaitzuren bazkaria atzeratu zuen, horietako batzuk bi orduz zain egon zirelarik. Arduradunen huts egitearekin, hainbat eta hainbat bazkari azaldu ez zirela esan nahi dut eta haiek abisatu ez zuten, beranduago hasi behar



izan zuten. Nire belarrietara iritsi denez, postuetako hainbatek salmentarekin batera bazkari txartelak banatu omen zituzten doan eta hau dela-eta, bazkalorduan atzekaldean zigilua zutenak bakarrik onartu ziren. Zorionez, bildutako guztiek zuten zigilua. Nola ez, jaialdi guztietan bezala, baziren azokaz ohartu ez zirenak eta Erle Eguna jendea erlez mozzorrotzen zen eguna zelakoan zeudenak, baina gainontzean ondo irten zen jaialdia. Zorionak antolatzaileei eta batez ere, laguntzaile guztiei!

Gaztainaren inguruan

Gure auzoan azkenaldian aldaketa ugari eman dela begibisakoa da, Kalezar orde "Auzoberri" deitu beharko diogu!

Baina kronika hau ez dut obra kontuekin bete nahi. Aspergarria izateaz gain, zer kontaturik ez dagoenaren itxura ematen baitu obrei buruz idazteak (nahiz eta batzutan ez garen gai aldetik sobrate ibiltzen).

Hala ere, gauzatxo bat adierazi nahi dut kontu honen inguruan. Auzoan aurten martxan jarri berri da haurtzaindegia, haur eskola edo guarderia. Oraingoan, eta aurrekoaren ondoan, helduentzako Eguneko Zentruak hartuko du txanda. Gutxi barru irekitzeko asmoa dago, ia lan guztiak amaituta baitaude. Honela, helduenek eguna bertan pasa ahal izango dute, konpainia ederrean.

Beste kontu bat ere aipatu nahi dut. Orain gutxi, telebistan ikusi berri dut Asturiaseko herri txiki


batean egin zen festa bat: gaztainaren inguruko festa.

Musika, dantza, sagardoa, umorea, eta nola ez, gaztainak uztartzen ziren jai honetan, helburu jakin batekin: gaztainak merezi duen errekonozimendua eta garrantzia ematea.

Gaur egun, gaztaina bigarren mailako jaki bezala ikusia dagoela zioten antolatzaileek, pobreen janari gisa. Aurreritzi hauekin erabat bukatzeko aldarrikapen festa hau antolatu zuten. Hau ikusirik, gurean ere horrelako zerbait egin genezakeela otu zait, gehien bat parrandarako aitzakia izan daitekeelako. Eta hemen parranda egitea batere gustatzen ez zai-gunez...

Negu partean, hotz dagoenean, afari eta festa polita egin liteke gaztain erreak janez, sagardo gozoa edanez eta hotzari aurre egiteko dantza eginez. Eta ez legoke batere gaizki, ezetz?

Kalezar



ANDONI
UDABE

"Nere txakur txikia"

Gure auzo eta inguruetan gero eta txakur gehiago ikusten ditugu. Horrelako animalia bat gure artean baldin badugu, pixkanaka lagun edo adiskide haundi bihurtzen zaigu, eta ahalik eta ondoen zaintzen saiatzen gara. Txakurrei buruz ari naizenez, pasarte bat kontatuko dizuet.



Aiako auzo batean Manterolako errotariak Argin-berri baserriko txakur txikia hil omen zuen. Gero hura bizkarrean hartuta, etxez etxe ibili zen azeri biltzaileei ematen zitzaaien saria biltzen. Eta Pastor Izuelak, bertsoan abilanez, bertso batzuk atera omen zituen:

Txakur txiki gorritxo bat
faltatu zait neri
arras galdu zait eta
ez da inon ageri;
ez diot maldiziorik
bota nahi inori
hartaz baliatzen dena
ongi bizi bedi

Manterolan errotari
gizon abila da,
nere txakur txiki hori
hark berak hila da
azeria duela
hor ibilia da,
zerbait bildu nahia badu
hark familiara

Garai haietan ere bizimodua gogorra izango zen, dudarik gabe, eta ahal zen moduan atera behar dirua!

Atxegalde



JONE
EIZMENDI



AGUSTÍN
ESNAOLA

Santuenea

Mus Txapelketa, Gas Naturala

Azkeneko lau urte hauetan, Usurbilgo elkarte-
Aen arteko mus txapelketa ospatzen da. Aurten bosgarrena egingo da eta Santuenea auzoko Ibai-Ondo elkarteari tokatu zaio antolatzea.

Mus txapelketaren finala azaroaren 30ean ospatu-
ko da gure auzoan. Elkarte bakoitzeko bi bikote joaten dira finalera. Aldez aurretik, elkarte bakoitzak bere txapelketa antolatzen du, finalera joango diren bikoteak erabakitzeke.

Jadanik, elkarte batzuek ospatu dute beren txapelketa partikularra. Beste batzuk aste honetan ospatuko dute. Baina, finalera iristen diren bikote guztiak, afari eder batekin bukatuko dute. Hau bai dela, elkarteen arteko adiskidetasuna lantzeko erarik egokiena.

Beste gai bat azaldu nahi dut. Auzoan jadanik sartzten ari diren gas naturalaren instalazioa. Bakarrik, sare nagusia konektatzea falta da. Baina auzoan dabilzan enpresak ez dira oso fidagarriak. Lanean,

txukun dabilzala ematen du? Ez ordea kobratzeko garaian.

Etxe batzuetan, kontratu bat sinatu zuten instalazioa egin aurretik, eta gauzak ondo ez edo han jartzen duten bezala ez egin harren, kontu korronteko zenbakitik kobratzen ari dira (kanpoan egindako txabolak). Batzuk, udal-
txeak agindu diela esaten dute eta beste batzuk gas naturaleko enpresak agintzen diela. Kontuz honelako trikimailuekin. Ez dira garbi jokatzeko ari. Ordaindu aurretik, ondo begiratu egindako lana ondo dagoen ala ez, eta Kutzara joan behar baldin bada erreklamatzera, ez utzi denbora pasatzen.

Ez dut inor alarmatu nahi, baina, kontu handiarekin ibili behar da jende honekin. Beraientzako ez da gauza berria, baina guretzako bai eta abantailarekin jokatzeko dute.



Bide galduak



ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Gaurko honetan gure auzoko errepideez
Ghitz egitera natorkizue. "Orain ere kontu berdinarekin al da hau?", esango duzue batek baino gehiagok. Ba bai, halaxe da bai. Norbaitek kasu egingo balit ez nuke hainbeste aldiz kontu berdinarekin ibili beharko, baina beno, insistitzen duenak lortu egiten omen du eta saiakera faltagatik ez da izango!

Hasteko, esan beharra daukat Santueneatik gora doan bideko ubidea alper-alperrik dagoela. Zergatik? Hostoak egoteaz gain (normala urte sasoi honetarako), harria eta lokatza ere badago-elako. Euria egiten duenean denak ubidera erortzen dira eta hantxe daude ez aurrera eta ez atzera. Eta noski, euri egunak izaten ditugunean, ur guztiak errepidean behera, bidea guztiz labainorra bihurtzen da.

Bestalde esan, ordu aldaketa dela eta, lehenago iluntzen duen honetan, gure bideak oso arriskutsu bilakatu direla. 6:30etarako iluna

dago eta mugimendua egoten da oinezkoei dagokionez gure bideetan. Oinezko hauek, orokorrean, sendategikoak izaten dira. Batzuk alde batetik joaten dira, besteak bestetik. Batzuk banaka, besteak koadrilan. Denok dakigun bezala, argirik ez daukagu gure errepidean, ez da zipitzik ikusten eta egunen batean ezbeharraren bat izango da eta alferrik izango da negar egitea. Badakit udaletxeak proiektu asko dituela esku artean baina gure bidean farola batzuk jarriko balitu, auzotarrok eskertuko genuke.

Azkenik esan, erriberatik sendategiko kruzera igotzeko bidean badagoela puntu gatazkatsu bat. Bihurgunea itxia da eta bide bazterrean dauden belarrek ikusmena galarazten dute. Ispilutxo bat ez litzateke gaizki etorriko.

Nik nire eskaera egin dut. Eskatzea libre omen da, baita ez ematea ere, baina... beno, ea denon artean gure bideak txukuntzen ditugun!

Orioko hodei beltzari begira

Festak pasa berriak ditugu eta frontoiaren inaugurazioa gelditzen zaigu zintzilik. Egun horretan ere ospatuko dugu herri bazkari eta pelota partiduekin. Profesionalenak, noski.

Jai egun hauek igaro ondoren, helduek hartzen dute protagonismoa gure herri txiki honetan, beren ikastaroak, beren erakusketak, bidaiak eta abar.

Beste lekuetan bezala, dinamika galtzen ari gara hemen ere. Hasteko, gure artean harremanak gero eta gutxiago ditugula esango nuke. Horren adierazgarria izan da aurtengo San Praixku bezpera.

Eliza zaharrean zen zita. Trakets musika taldea martxan, entzule gutxi eta dantzari gutxiago. Bertan ari ginen tertulian: “12ak dituk eta gau zoragarria egiten dik”. “Bai, baina non zagok jendea? Zergatik hain gutxi?” “Festen hasierak dituk”. “Tristura ematen dik, urtetik

urtera jende gutxiago biltzen gaituk. Kezkatzekoa duk”.

Eta tertulia gehiago: “Festetan bakarrik elkar-tzen gaituk gure kontutxoak esateko”. “Gure izaera pikutara zihoak”. “Baina dena ez duk ezkorra, ostiralez eta larunbatez hiru taberna antolatzeko ahalmena izan diate jai batzordekoek”. Bejondaizuela.

Horiek izan dira aurtengo San Praixkuetako kontutxoetako batzuk. Baina ahalegin handiagoa egin beharko dugu hemendik aurrera, Orio aldetik datorkigun hodei beltza gelditu nahi badugu. Horko golf edo golfo zelaiak, hotelak eta abar gure mugetan ditugu. Horko promote-reek ez dute diruaren legea besterik ikusten. Beraz, Aginagako herria maite badugu, antolaten hasi beharko dugu eta azkar gainera. Bestela, egun gorri daukagu.

Aginaga



LONTXO
ZUBIRIA

Abenduko eguna, argitu orduko iluna

Negua atarian dugu, ate joka, barrenera sartu nahian; aurrez bidalia zuen mandataria: hark zigun aldatu ordularia... Eta geroztik, umeak lehenago erretiratzen ditugu epelera. Baina berri zaharrak dira.

Ibiliala naiz galdezka: Zubietan, zer berri? Denek: zaharrak berri, kazetariaren amorragarri. Betiko txikieriaz aparte ezer ez: zalapartarik ere sortu ez duen eztabaida bat edo beste, bideak (egiten ari direnak) eta etxeak (egin behar dituztenak) direla medio.

Segi galdezka. Ezagutuko dituzue ehiza kontuak. Horietakoa da ondoko hau. Basurde batek egin omen zuen kabia gurean. Erriberako soro horietako batetik ateratzen zuen mantenua (artoa lapurtzen ziola bati, alegia), eta hori kontu serioa da. Hor joan omen da jabea Etxeberri aldera, anai ehiztarien bila. Eta ehiztariak, jakina, tiroa bota, eta basurdea zauritu. Honek, ordea, zer erabakiko eta bere burua itotzea. Horrela izan omen zen; ibaira bota zuen bere burua. Gerora azaldu zen ur azalera... Badakizue, ehiztari kontuak.

Segi dezagun: hurrena kirola. Hemen ere lehor.

Iritsi ziren azken hamar laguneren artean ez zen Zubietakorik.



Gurasoen taldekoek eman didate pox pixka bat, berri eske joandakoan —eta badakizue nolakoak diren ume kontuekin hasten direnean—. Lehengoan gaztain jana egin zuten. Non, eta Aizarnazabaleko mendi kasko batean! Harrapa itzak. Nora joango ote dira horiek txuletak jatera? Gaztainak ere, ez nolana-hikoak: Cacereseakoak, alajaina.

Horiek izan dira hurrengorako deia egin dute-nak: Olentzerorako gabon kantak entsaiatzeko. Lehengo saioa, azaroaren 29an, arratsaldeko zazpietan, eskola txikian. Ez dago kuidadorik, ez dute ahots onik eskatuko.

Amaitzeko. Leihoan nago, aurreko etxeko bizi-laguna zerura begira dago poetek egingo luketen antzera: aurten ere uso asko pasa da, hura lanean ari zen bitartean.

Zubietak



PELLO
ARANBURU

Trenbidea zabaltzeko asmoa azaldu du Eusko Trenek


ORAINDIK EGITASMO BAT BAINO EZ DA. ZUMAIATIK DONOSTIARAKO BIDEA 30 MINUTUTAN EGIN NAHI DU EUSKO TRENEK. ORAINDIK EZER ZEHATZIK AURKEZTU EZ ARREN, EGITASMO HONEK BERE ONDORIOAK IZAN DITU DAGOENEKO. PROIEKTU HONENGATIK GELDIARAZI BAITA ATALLUKO URBANIZAZIOA. HONEK GUZTIAK KEZKA ERAGIN DU UDAL GOBERNUAN.

Antza denez, abiadura handiko trenaz gain, Y ospetsua, Eusko Jaurlaritzak (Eusko Tren) baditu buruan beste zenbait asmo ere. Ez dugu proiektuaren xehetasunik, oraindik ez delako aurkeztua izan. Baina egitasmoa sendoa da. Eta lehen ondorioa Atallun jasan behar izan dute. Bertako urbanizazioa geldiarazi egin baita.

Antza denez, Eusko Trenek 30 minutuko epean osatu nahi du Zumaia eta Donostia arteko bidea. Hori gauzatzeko, bide osoa zabaldu nahi du; hau da, trenbidearen eremua bikoiztu egin nahi duela, alegia. Printzipioz, ez litzateke arbuigarria izan behar. Garraio publikoa hobetzeak bere abantailak ditu. Autoa erabiltzeko arrazoi gutxiago izango genituzke eta, ondorioz, ingurugiroaren osasun kaxkarrak eskertu egingo luke. Beste gauza bat da proiektu hori nola burutu nahi duen Eusko Trenek. Izan ere, bidea bikoizteak bestelako ondorioak izan ditzake. Bizkarren ere, adibidez, tunelaren eremua bikoiztuko al

da? Eta zer gertatuko da Txokoalden? Hor non egingo da tren-karrilen desdoblamendua? Eta Troian, mendiari espazioa jan behar al diote?

Galderak baino ez dira. Eusko Trenek behin-betiko proiektua aurkeztu arte ezin argituko ditugunak. Dena den, jada onartua dagoena trenbide sarearen lurraldeko sektore plana da. 2001eko azaroan onartu zen behin betiko sektore planak dioenez, Zumaia eta Donostia artean 30 minutuko maiztasunak lortzeko beharrezkoak dira: Usurbilgo tartea zabaldu eta bertan lantegi berriak ezartzea, besteak beste. Sektore planak honela argudiatzen du trenbidea zabaltzearen asmoa:



ZUMAIA ETA DONOSTIA 30 MINUTUTAN LOTU NAHI DITU PROIEKTU HONEK.

“Usurbilen Gipuzkoako garajeak ezarriko dira, Topoaren unitateen mantenturako, Zumaia-Zarautz eta Donostia arteko maiztasunak handitu egingo dira eta Lasarteko hirigunera sartu ahal izango da”.



WITZUNGAN

HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

Euskal preskak etxera!



Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Epaitegietan da Atalluko lurren desjabetza

Atalluko industrialdean arazoak sortu dira azken aldi honetan, lurjabe eta enpresarien artean, bereziki. Espropiaturiko lurren prezioa da gakoa. Enpresariak errekurtsioa jarri dute eta baita lur-jabeetako batek ere. Gauzak ez badira aldatzen, epaitegietan izango du jarraipena Atallun sortu den tira-birak.

Enpresen beharrei erantzun ahal izateko Udalak lurren desjabetzari ekin zion. Horrelakoetan, Gipuzkoako lurraldekako desjabetza epaimahaiak jartzen du lur horien prezio justua.

Antza denez, lur-jabe batzuk ez daude prezio horiekin ados. Enpresariak, berriz, kezkatuta daude lur-jabeek gehiago eskatzen badute prezioak gehiago igo egin daitezke-



ATALLUKO URBANIZAZIOA GELDI DAGO EGUN HAUETAN.

lako. Bere desadostasuna azaldu asmoz, errekurtsioa jarri berri dute eta era horretan lurren prezioen igotza ekidin nahi dute. Errekurtsio administratiboa martxan jartzearen ekimena Ingemar, Akaba, Laser Ken, Guifor eta Fagor-Berriola enpresena izan da. Udalak, herrian eman diren antzeko beste kasuetan ez bezala, enpresariak bat egitea erabaki du prezioak gora egin ez dezan.

LURPERATZAILE LANPOSTURAKO DEIALDIA

Gobernu Batzordeak lurperatzaile plaza hornitzeko deialdia egin zuen uda baino lehen. Obra eta zerbitzuetako peoiaren lehiaketa-oposiziorako eskaerak aurkezteko epea azaroaren 25ean amaituko da. Funtzio hauek bete beharko ditu plaza eskuratzen duenak:

1. Hilerriaren zerbitzuez arduratu, hilotzak ehortzi eta lurpetik ateratzea eta mantentimendu orokorreko zerbitzuak egitea.
2. Hilerriko eta bere areto desberdinetako garbitasuna zaindu.
3. Ehorzketarako edo desehorzketarako beharrezkoak diren eragiketa guztiak egitea; eta baita, kasuari dagokionaren arabera, hilobien ixtea eta estaltze-lanak ere.
4. Behar diren adina hilobi prest edukitzea.
5. Lanpostuaren kategoria eta erantzunkizuna dela-eta, eska dakiokkeen beste edozein eginkizun.
6. Jardineritzari loturiko lanak egitea, udalerriri osoan.
7. Oro har, bere unean Udalak lanpostu deskribapenean sartzen dituen zeregin guztiak betetzea.

Euskal Txokoak zerbitzuaren lehiaketara aurkezteko azken eguna, hilaren 25a

Euskal Txokoen zerbitzuak lehiaketa bidez esleitu behar ditu udalak. Baina adi egon, proiektuak aurkezteko epea hilaren 25ean, astelehena, amaitzen baita. Proposamen irabazleak udako zein neguko Euskal Txokoen zerbitzuetaz arduratu beharko du.

Euskal Txokoak ikastolaren eta udalaren ekimenez sortu ziren. 2-12 urte bitarteko haurrei zuzendua dago zerbitzu hau eta bereziki euskararekin zailtasunak dituztenei.

Funtsean, neguko zein udako Euskal Txokoetan funtzio hauek betetzen ditu: euskara sustatu, elkarbizitza eta talde-laneko baloreak landu, haurrei aisialdian euskarazko giroa ziurtatu, herriko kirola ezagutarazi...

Esan bezala, zerbitzu hau lehiaketa bidez esleituko du Udalak. Eskatzaileek EGA edo baliokidea den tituluren bat izan behar dute. Begirale titulua izatea ere ezinbestekoa da. Proiektuak hilaren 25erako aurkezteko behar dira.



HASTEKO, URTEBETEKO IRAUPENA IZANGO DU KONTRATUAK BAINA LAU URTERA LUZA DAITEKE HITZARMENA.

Hiri hondakinak, irteera premian

Birziklatzearen kulturak goranzko joera izan du azken urteotan. Baina badi-ra birziklatu ezin diren hondakinak. Horiei ere, irtenbide bat eman behar zaie, zaborteziaren alternatiba jada agortuta baitago. San Markosekoa lau urte barru itxiko da, topera dagoelako. Honek urgentziatzko irtenbide bat eskatzen zuen. Errauskailuan omen irtenbidea. Baina errauskailuak ere hondakin toxikoak eragiten ditu. Eta horientzat zaborteziak beharko dira. Honek antzu egiten du zabortezi vs errauskailu eztabaida.

Kezka eta buruhauste handien iturburu izan dira hiri hondakinak. Ez da gai erraza. Adar asko ditu eta akaso alternatibak ez dira guztiz egokienak. Baina kontsumo gizartean bizi gara. Hondakinak gizarte-eredu honen ondorio dira eta, orain inoiz baino gehiago, irteera premian dira. San Markos Mankomunitatean bizi garenontzat behintzat, bai.

**HONDAKIN GUZTIAK
EZIN DIRA BIRZIKLATU,
BAINA NOLA EDO HALA
DEUSEZTATU BEHAR
DIRA**

Hondakinak behar bezala kudeatzeko sortu zen 70. hamarkadan San Markos Mankomunitatea. Lau dira



SAN MARKOSEKO ZABORTEGIA 2006. URTERAKO EZIN IZANGO DA ERABILI. HONEN ORDEZKOA ERRAUSKAILUA IZANGO DELA DIRUDI.

erakunde honen eginbehar nagusiak:

- Hiri hondakin solido gehienak berreskuratzea. Horretarako ezarri ziren gaikako bilketa-sistemak.

- Hiri hondakin solidoek duten materia organikoari balio ematea. Zentzu honetan, San Markoseko Zaborteziak sortzen duen biogasa aprobeztatzen da.

- Berreskura ezin daitezkeen hondakin solidoak kontrolpeko isurketa-aren bidez tratatzea. Hau da, zabortezi-lana; baina beti ere, ingurumena-rikiko errespetuan.

- Mankomunitatearen lurralde-ere-

muan dauden kontrolrik gabeko zaborteziak deuseztatu, garbitu eta kontrolatu.

Hauk dira, hitz gutxitan, Mankomunitatearen betebehar nagusiak. Baina nahiz eta birziklatzeko joerak gorantz egin, Europa aldeko birziklapen-mailara iristeko asko falta zaigu. Batak ez du bestea kentzen, dena den, hori beste kupel bateko sagardoa da.

Hamar udalerrien artean (Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Usurbil, Urnieta eta Astigarraga)

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
Okinologia eta Garbiketa

TABERNA-JATETXEA

ANTETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

PATRI

JATETXEA

- Eguneroko menuak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

Telf: 943 36 27 25
Kale Nagusia, 14

120.000 hondakin-tona inguru sortzen da urtean. Zabortegearenak egin du, lau urte barru jada ezingo da San Markosekoan ezer isuri. Honi eman beharreko irteera izan da Foru Aldundia eta San Markos Mankomunitatearen kezka nagusia.

Etorkizuna argitu asmoz, bi erakunde hauek eta Txingudiko Mankomunitateak hainbat azterketa egin dituzte. Guztietan, errauskailuaren formula hartzen da aintzakotzat. Egia da, hiru azterketak (plan integralak) DPA enpresak egin dituela. Hori bai, indarrean dagoen ingurumen araudia errespetatuz idatzi dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak jada herrialde osorako plana ontzat eman du. Baita San Markoseko batzarrak ere. Erantzun premia handia baitzen. Izan

ere, zer egin berreskura ezin daitezkeen hondakinekin? Nola deuseztatu? Orain arte San Markoseko zabortegeiak arazoa behar bezala konpontzen zuen. Baina aukera hori lau urte barru agortuko da. Eta hondakin berreskuraezin horiek nola edo hala deuseztatu behar dira. Errauskailuak ordezkatu du zabortegearen funtzioa. Azpiegitura hau oso garestia da baina errauskailuen bitartez balio energetikoa ematea proposatzen du onartu den plan integralak. Antzaenez, belaunaldi berriko errauskailu berriek ingurumenarekiko erabateko errespetua bermatzen dute. Dena den, errauskailu bakoitzeko bi zabortege ere egin beharko dira. Errauskailuen materiale toxikoak estali ahal izateko. Beraz, errauskailuak ez du guztiz zabortegearen sistema ordezkatzeko, ala bai?

ERRAUSKAILUA, EZINBESTEAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Txingudiko Mankomunitateak eta San Markosek aurkeztu dituzten proposamenetan ezinbestekotzat jotzen da errauskailuaren irtenbidea. Egia da enpresa berberak egin dituela hiru erakundeek planak. Baina dirudiezin, errauskailuaren irtenbidea da bakartzat hartzen dena.

Oraindik erabaki ez bada ere, ziurrenik bi errauskailu eraikiko dira. Eta horietako bat San Markos Mankomunitateko lurraldean jarriko da. Gipuzkoako hondakinen %50a inguru bertan biltzen baita.

San Markos Mankomunitateak herrian aurkezteko du bere plana

